

# EUSKADIKO EKONOMIAKO VIII. OLIMPIADA

## 2016ko APIRILaren 15a

### **AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA**

- Azterketak bigarren mailako batxilergoko “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa”ri dagozkion bost galdera eta lehen mailako batxilergoko “Ekonomia” irakasgaiko 2 galdera ditu. Ikasleak, galdera guzti hauetatik 5 erantzun behar ditu, gutxienez bat “Ekonomia” irakasgaikoa izan behar delarik.
- Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.
- Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.

### **EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA**

#### **1. GALDERA**

*El País* egunkariak 2015eko urriaren 29an argitaratutako albistea

Erantzukizun korporatiboa Inditexen

**Inditexek Txinako bere saltoki guztiak egokituko ditu eredu ekoefizientera**

**Pablo Islak enpresaren iraunkortasun planaren berri eman dio Txinako Ingurumen Babeseko ministroari**

#### **Merkatu global batean lehiatzeko multinazionalak**

Pablo Isla Inditexeko presidentea Chen Ji Ning Txinako Errepublikako Ingurumen Babeseko ministroarekin bildu da aste honetan, Pekinen, merkatu horrekiko bere konpromisoa berretsi eta taldeak mundu osorako duen Iraunkortasun Plana aurkezteko. Saltoki ekoefiziente ereduak zertan den azaldu dio xehetasun handiz, eta jakinarazi dio Txina izango dela munduko lehen merkatua eredu hau ezartzen, Inditex taldeak herrialde horretan dituen 500dik gora saltokietan. Eredu berria 2018an ezarriko da, beste merkatuetan baino bi urte lehenago.

Denda konbentzionalekin alderatuta, saltoki ekoefiziente ereduak % 30 murrizten ditu emisioak eta % 50eko aurrezpena eragiten du ur kontsumoan. 2018an, taldearen denda guztiak –bai berriak bai egun badituenak– ekoefizienteak izango dira Txinan, Pablo Islak Pekinen hartutako konpromisoaren ondorioz.

Inditexeko presidentek eta Chen ministroak aztertu egin dituzte konpainia mundu osoan iraunkortasun arloan garatzen ari den proiektuak, **iraunkortasunarekin** lotura zuzena izanik Txinan abian dituen egitasmoak barne, enpresak ohar batean adierazi duenez.

Islak azaldu duenez, taldearen ingurumen politikaren xedea da baliabide hoberenak erabiltzea produktuaren **bizi ziklo** osoan, **lehengaien** erabilera eta tratamendutik hasi eta janzkien birziklapen eta amaierako berrerabilpeneraino.

Saltokiez gainera, konpainiako buruak bereziki aipatu du Txinako kotoi organikoko etxaldeetan eginiko inbertsioaren garrantzia, eta mintzagai izan ditu ere hornidura katean eginiko ekintzak eta plataforma logistikoetan eta biltegietan ezarritako energia berriztagarrien politika.

Azkenik, Inditexeko presidentek Recicla2 proiektua aurkeztu du, helburutzat duena produktuak biltzea eta birziklatzea janzkien bizi zikloaren azken zatian.

**ARIKETAK:**

- a) Defini itzazu testuan azpimarratutako kontzeptuak.
- b) Erantzukizun Korporatiboa.
- c) Identifika itzazu testuan enpresak hartutako gizarte eta ingurumen erantzukizuneko neurriak.

## 2. GALDERA

Aitor Garay fisikako irakasleak inbertsio bat egin nahi du eta bere akademia zabaltzeko aukera aztertzen ari da. Honako hauek hartu ditu kontuan:

- 1) Inbertsioaren iraupena 3 urtekoa izango da.
- 2) Jarduera hasteko, aktiboak eskuratu beharko ditu. Beraz, prezio hauek ordaindu beharko ditu:

Altzariak	Armairuak, mahaiak eta aulkiak	7.000 euro
Informatikako ekipoa	Ordenagailuak, inprimagailuak, tabletak, etab.	8.000 euro

- 3) Akademiako ikasleek hileko kuota ordainduko dute, eta hortik lortuko dira inbertsioaren jardueraren kobrantzak. Kalkuluen arabera, akademiak 100 ikasle izango ditu gutxi gorabehera, eta hileko kuota 60 eurokoa izango da. Eskolak urtean 11 hilabetez emango dira.
- 4) Urteko gastuak hauek izango dira:

	1 URTEA	2 URTEA	3 URTEA
Soldatak	45.000 euro	45.000 euro	45.000 euro
Material didaktikoa erostea	3.000 euro	3.000 euro	3.000 euro
Mantentze gastuak	1.500 euro	1.500 euro	1.500 euro
Hornidura gastuak	1.100 euro	1.100 euro	1.100 euro

- 5) Eskolak errentan hartutako gela batean emango dira, eta hileko errenta 700 eurokoa izango da. Errenta urteko 12 hilabeteetan ordainduko da.
- 6) Urteko eguneratze tasa konstantea % 5koa da.

### ARIKETAK:

- a) Kalkulatu inbertsioaren balio eguneratu garbia (BEG) eta esan Aitorrek inbertsioa egin beharko lukeen.
- b) Plantea ezazu Barne Errendimenduaren Tasaren (BET) kalkuluaren adierazpena eta adierazi haren esanahia grafikoki

### 3. GALDERA

Inbertitzaile bat janari lasterreko negozio batean inbertitzeko aukera aztertzen ari da. Zalantzan dago, negozioa lokal txiki batean ireki (100 metro koadrotik beherakoa), tamaina ertaineko lokal batean (100-200 metro koadrokoa) edo lokal handi batean (200 metro koadrotik gorakoa).

Salmentak kalkulatzea ez da lan erraza, eta salmenta kalkulu hauek egin ditu lokal mota bakoitzerako:

- a) Lokal txikian, salmentagatiko diru sarrerak 100.000 euro, 120.000 euro eta 140.000 euro izan daitezke, kontuan hartuta eskaria handia, ertaina edo txikia – hurrenez hurren– den.
- b) Lokal ertainean, salmentagatiko diru sarrerak 110.000 euro, 140.000 euro eta 170.000 euro izan daitezke, kontuan hartuta eskaria handia, ertaina edo txikia – hurrenez hurren– den.
- c) Lokal handian, salmentagatiko diru sarrerak 130.000 euro, 160.000 euro eta 190.000 euro izan daitezke, kontuan hartuta eskaria handia, ertaina edo txikia – hurrenez hurren– den.

Probabilitate hauek kalkulatu ditu lokal mota bakoitzaren eskariari lotuta:

	Eskari txikia	Eskari ertaina	Eskari handia
Lokal txikia	% 50	% 30	% 20
Lokal ertaina	% 30	% 60	% 10
Lokal handia	% 10	% 20	% 70

Lokal mota bakoitzak sortutako gastuak honako hauek dira:

	Gastuak guztira
Lokal txikia	90.000
Lokal ertaina	100.000
Lokal handia	152.000

#### ARIKETAK:

- a) Egin inbertsioaren probabilitate banaketaren zuhaitzaren diagrama.
- b) Aholka iezaiozu inbertitzaileari inbertsio egokienaren inguruan.

#### 4. GALDERA

FACULTY SA enpresaren Egoera Balantzea hauxe da 2015/12/31n (mila €tan):

<b>Aktiboa</b>				<b>Ondarea:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• 800 akzio</li><li>• Kotizazioa 2015/12/31n: 0,8€</li></ul>
Ibilgetua	980	Kapitala	800	
Izakinak	140	Erreserbak	810	
Bezeroak	830	Galdu-irabaziak	200	
Bankuak	100	Epe luzerako maileguak	310	
Kutxa	20	Hornitzaileak	150	
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>2.070</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		

#### ARIKETAK:

- Kalkulatu akzio bakoitzaren balio teorikoa.
- Erosiko zenituzke enpresa honen akzioak? Arrazoiu erantzuna balio nominalean, balio teorikoan eta kotizazioan oinarrituta.

## **5. GALDERA**

FACULTY SA enpresak aholkularitza zerbitzuak eskaintzen ditu finantza gaiei buruz. Enpresaren kostu finkoak 5.000 € dira (lokalak errentan, administrazio arloko pertsonala, eta hornidurak eta bulegoko materiala). Kostu aldakorrek finantza gaietako adituen kontratazioak eragindakoak dira: 100 €ordu bakoitzeko. Aholkularitza zerbitzua 250 €ordu kobratzen da batez beste.

### **ARIKETAK:**

- a) Zenbat zerbitzu eskaini behar dira galerarik ez izateko?
- b) Zenbatekoa da errentagarritasun atalasea edo itopuntua?
- c) Adierazi grafikoki itopuntua eta seinalatu noiz gertatzen diren galerak eta noiz sortzen diren mozkinak.

## EKONOMIA

### 1. GALDERA

*El País* egunkariak 2016ko otsailaren 25ean argitaratutako albistea

**Kontsumoak eta inbertsioak % 3,2 igoarazi dute Barne Produktu Gordina (BPGd) 2015ean**


**Estatistikako Institutu Nazionalak berretsi du Espainiako iazko hazkundera handiena izan dela 2007az geroztik. Ekipamendu ondasunetan eta eraikuntzan izandako inbertsioa nabarmendu du.**

Espainiako ekonomia % 0,8 hazi zen 2015eko laugarren hiruhilekoan, eta % 3,2, urte osoan. Hazkunderik handiena izan da 2007az geroztik. Datu hori bat dator urtarrilean argitaratu zen behin-behineko zifrarekin, eta orain berretsi egin du Statistikako Institutu Nazionalak. Ekonomiak gora egin du kontsumo pribatuari (Espainiako BPGd-ren % 55) eta inbertsioari esker: % 3ko eta % 6,4ko urteko igoerak izan dituzte, hurrenez hurren, Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren arabera. Bi aldagaiok kanpoko eskari garbiaren jaitziera berdintzen dute, inportazioen igoera indartsuak esportazioena gaindituz eragin duena.

“Estatu barneko eskaria hazkunderaren motor bihurtu da, eta 3,7 puntu portzental gehitu dizkio BPGd-ren igoerari, 2014an baino 2,1 puntu gehiago, kontsumo pribatuaren eta inbertsio produktiboaren dinamismoaren eraginez”, adierazi dute Ekonomia Ministerioko iturriek. Aldiz, kanpoko eskari garbiak puntu erdia kendu dio hazkunderari, esportazioena baino handiagoa izan den inportazioen azelerazioagatik.

EVOLUCIÓN DEL PIB ESPAÑOL

Variación en %



[...] Fuente: INE

EL PAÍS

### ARIKETAK:

- a) Zer da Barne Produktu Gordina (BPGd)? Zergatik da hazkunde ekonomikoaren adierazlea?
- b) BPGd-ren zer osagai aipatzen ditu artikuluak? Zer metodo hartzen da kontuan? Arrazoitu erantzuna.
- c) Zer ikus dezakezu grafikoan BPGd-ren bilakaeraz?



## 2. GALDERA

Fruitu lehorren merkatua funtzio hauetan oinarritzen da:

- ESKARIA:  $Q_d = 720 - 10 P$
- ESKAINTZA:  $Q_s = 8P$

ARIKETAK:

- a)  $P = 30$  bada, gehiegizko eskaririk edo eskaintzarik izango da merkatu honetan? Zenbatekoa?
- b) Zenbatekoak izango lirateke oreka prezioa eta kantitatea? Erantzun grafikoki eta analitikoki.
- c) Aldaketa bat gertatuko balitz ekoizleetan eta eskaintza zurruna izatera igaroko balitz ( $Q_s = 400$ ), zenbatekoa izango litzateke oreka prezio berria? Kalkulatu eskaintzaren prezioaren elastikotasuna bi egoeretan.